

## Deialdiaren xedea

Beren tituluari lotutako lanetan esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten gazte langabeak EUSKAL ENPRESEK praktiketan edo/eta kontratu mugagabe batekin kontratatzeko bideratutako laguntzak arautzea.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bulegoetan edo zentro laguntzaileetan aurkeztuko dituzte enpresek hautatu beharreko gazteen profila zehazten duen lan-eskaintza eskabidea. Eskaintza bat kudeatu ondoren hautagai gisa bideratu diren pertsonen egindako kontratuak baino ez dira diruz lagunduko.

Interesdunek Lanbiden- Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egon beharko dute, datuak gaurkotuta dituztela.

# Kontratatutako pertsonak bete beharreko baldintzak

- a) 16 urtetik gorakoak eta 30 urtetik beherakoak izatea.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea.
- c) Langabeak izatea eta Lanbiden enplegu-eskatzaille gisa izena emanda egotea.
- d) Honako titulazio hauetakoren bat izatea:

- ✚ Unibertsitate-lizentzia edo gradua, Ingeniaritza, Arkitektura.

- ✚ Unibertsitate-diploma, Ingeniaritza Teknikoa, Arkitektura Teknikoa.

- ✚ Araututako lanbide heziketako edo berariazko lanbide heziketako goi- edo erdi-mailako teknikaria. Honako bi tituluak ere aurrekoen baliokideak dira: teknikari laguntzailea (LH1) eta teknikari espezialista (LH2).

- ✚ Ofizialki, aurrekoen baliokidetzat hartutako beste titulazio batzuk.

- ✚ Profesionaltasun-ziurtagiria.

**Gazte Bermea Sistemaren** datu- basean identifikatuta daudenei **lehentasuna** emango zaie hautaketa-prozesuan.